

oharrak

! Haurreskola zerbitzua

Itsasondoko haurreskolako matrikulatze epea datorren irailaren 19an irekiko dela jakinerazten dizuegu. Haurreskola 0-2 urte bitarteko haurrentzat da, eta Itsasondoko haurrek lehentasuna dute, beste herrietako haurren aldean, Itsasondoko haurreskolan sartu ahal izateko.

Haurreskola asteleheneretik ostiralera bitarte dago zabalik, goizeko 07:30etik arratsaldeko 17:30era. Matrikulatu ahal izateko, haurreskolan bertan ematen duten inprimakia bete behar da.

Matrikulazio epea irailaren 19tik 30era bitarte.

Informazio gehiago 943 164831 telefonoan.

! Udala

Udaletxeko 2. solairuan zegoen Larrialdi pisuko altzairuak soberan geratuko direnez, horiei irtenbidea bilatzeko aldizkari hau aprobeztatzea pentsatu da. Aukera desberdinak egon daitezke. Proposamen edo eskaerarik duten herritar guztiei gizarte zerbitzuetara joateko deia egiten diegu. Orduetgia: asteazkenak, goizeko 09:00etatik 13:00etara; aurrez telefonoz txanda eskatuta (943-881170); korreo elektronikoko bidez (gizarte.itsasondo@udal.gipuzkoa.net).

! Bizi Nai elkarte

Aldizkariko azken lerro hauek aprobeztatu nahi lituzkete herriko jubilatuzko gazteak bazkide egitera animatzeko, guztien artean Itsasondoko Bizi Nai Jubilatuzko Elkarte bizirik mantentzea posible izan dadin.

Kultur Agenda

Urria

- 15: MENDIKLETA TRABESIA
- 21: LIBURUTEGIAREN NAZIOARTEKO EGUNA
- 23: MENDI IRTEERA

Azaroa

- GAZTAIN BILKETA
- GAZTAIN JANA
- HAURRENTZAKO LIBURU ARETOA
- 25: KANTU AFARIA
- 26: ANTZERKIA (Txirene Antzerki Taldea)

Abendua

- Euskara astea
- 17: ZIKLO KROSSA
- Gabonetako ekitaldiak
- Haur eta nerabeentzat ekintza bereziak

Telefono interesgarriak

Udaletxea 943 881170

- Gizarte Langilea
- Udal Arkitektoa
- Epaitegia

Haurreskola 943 164831

Herri Eskola 943 887704

Arbel-Aitz Elkarte 943 881339

Lurdes Janari Denda 943 885236

Arrastoa Botika 943 882148

Medikuarenean Txanda Hartzeko 943 805800

Kaxintane Taberna 606 756551

Nautiko Taberna / Izaskun Hotela 943 880012

Izaskun Ileapaindegia 943 160285

Sasieta 943 161555

Traste Zaharrak 943 161590

Taxi (Ordizia) 943 881486

itsasondo.eo

Herriko Aldizkaria ((14. zk))) Iraila-Abendua 2011

Ale honetan parte hartu dutenak honakoak dira:

Ainara Urteaga
 Arantzadi Elkarte
 Axier Bazaga
 Belen Mendizabal
 Danel Etxeberria
 Edurne Ayuso
 Eskolako haurrak
 Haizea Arruti
 Haurreskolako Hezitzaileak
 Iker Mendizabal
 Itsaso Urretagoiena
 Jose Ignacio Duhau
 Jose Luis Aranburu
 Jubilatuzkoak
 Maite Lasa
 Maixabel Garmendia
 Mikel Mendizabal
 Miren Seguro
 Rosa Aurkia
 Rosi Noguera
 Unai Agirre

itsasondo 2.0-k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Herritik kanpo bizi baldin bazara, eta, korreoz edo e-mailez, aldizkaria zure etxean jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

943 88 11 70

itsasondo2.0@itsasondo.net

Lege gordailua: SS-297-2010

ISSN: 2171-5572

GOGORARAZTEN DIZUEGU HURRENGO ALEA ABENDUAN IZANGO DUZUTELA ETXEAN

itsasondo.eo

Aldizkaria ((14. zk))) Iraila-Abendua 2011

Paper birziklatuan egina



Ordiziako Elkartearen Arteko XXI. Sukaldari Txapelketan, Arbelaitz Elkarteak Irabazle

Joxe M^e Dorronsoro: oinetako konpontzailea
 Zaharrak berri: San Juango Ermita
 Gazteria: Emantzipazio Plana

truke estudio grafico

Kaixo irakurle!


Urkiko festen ondotik Itsasondo herria jaietan murgildu berri da. Festa eta parrandaren zapore gozoa oraindik ahoan ditugularik ailegatu da *Itsasondo 2.0*-ren ale berri hau gure artera. Ohi legez gure herriari so jarri gara iragan zaharrari eta etorkizun berriari ateak zabalduz.

Gaurkotasunaren atarian tarte berezia eskaini nahi izan diogu Itsasondoko udal berriari izan ere erreleboari heldu dio urtez urte egindako ibilbideari jarraipena emanaz. Joan den maiatzeko hauteskunde ondotik udal ordezkariak karterak banatu eta beren karguak hartu dituzte ale honen lehen lerroetan irakur daitekeenez. Baina gure aldizkari kokor honetan bada albiste eta kontakizun gehiagorentzat lekurik. Aurrerapen txiki bat egin asmoz, elkarrizketen atarira jo eta urte luzeetan zehar gure herrian zapatarari lanetan ibili den Jose Mari Dorronsororekin izaniko solasaldia duzue. Orrialdeetan aurrera eginez, San Juan auzoko ermitaren inguruko kontaktuzunak aurkituko dituzue Edurne Ayusoren ahotik, baita erleen mundu bitxia ezagutzeko parada ere Aranzadi Elkartearen kideen eskutik. Oraingo honetan Santamaina egingo dugu txangoa, ibilbidearen magalik ederrenak zuei ezagutaraziz. Hori guztia eta gehiago, beraz badakizue... astindu aldizkaria eta gozatu *Itsasondo 2.0*-rekin!

Hurrengora arte eta bitartean kontent bizi! ■

Herri eskola

Azken hamar urtetan, bi urteko gelan matrikulatu diren haurrak:



luz 55 irakasleek matrikulatu ziren (2-12), aurtun 68.



DOINUA: *Iparragirre abila dela*

Giro gozotan bedatu zaigu udazkeneko alea: lan-banaketan murgildu zazigu udaletxeko taldea, herriko zapatarari izan den Joxemari istori askoren jabea konpondu edo berria erosi hortxe baitago aldea.

Jubilatuak lokal berrian lehendabizko urtea, San Juango ermitak bere istoria dakar paperez bete, erleen garrantziaz jasotako iritziaz Aranzadiaren aukera, onena degu ezitia bilduz Santamainara joatea.

Sarrerako bertsoak

03. **Udaleko berriak:** Udal berria osatu da.
 04-05. **Eskola:** 10-11 ikasturteko zenbait ekintza.
 06. **Haur eskola:** Egokitzapena.
 07-09. **Elkarrizketa:** Joxe M^a Dorronsoro.
 10. **Agenda21:** Zabor bilketa berriaren balorazioa.
 11. **Gazteria:** Emantzipazio Plana.
 12-13. **Gazteria:** Udako ekintzak.
 14-15. **Zaharrak berri:** San Juango Ermita.
 16. **Kale inkesta.**
 17. **Aranzadi:** Erleak.
 18. **Gizartea:** Etxez etxeko laguntza zerbitzua.
 19. **Informatika:** Ilegala edo legala?
 20-21. **Ibilbidea:** Itsasondo-Santamaina-Itsasondo.
 22. **Itsasondoko aitonak:** Egoitza berriaren lehen urtea.
 23-25. **Kultura.**
 26. **Liburuaren txokoa.**
 27. **Lorezaintza eta sukaldaritza.**
 28. **Oharrak. Kultur agenda.**

Udal berriaren osaketa

Maiatzaren 22ko hauteskunde ondotik osatutako udal berriak antolaketari buruzko lehen erabakiak hartu zituen ekainaren 27an egindako udal batzarrean.

Korporazioan osatu diren lan batzordeak honako hauek dira:

- **Udaletxeko kudeaketa,** arduraduna Areti Gkika
- **Ingurumena,** arduraduna Asier Garro
- **Herri bizitza,** arduraduna Ekaitz Arruti
- **Ongizatea,** arduraduna Erkuden Mendizabal
- **Parte hartzea eta komunikazioa,** arduraduna Erkuden Mendizabal
- **Hirigintza,** arduraduna Asier Garro
- Alkate berriak Asier Garro zinegotzia alkateorde kargurako izendatu du eta Emma Arrondo izango da diruzain berria.

Udalak parte hartzen duen erakundeetako ordezkariak ere erabakita geratu ziren:

- Sasieta
- Goimen
- Gizarte Erakundeak, Zaharren Egoitzak
- Enirio Aralar Mankomunitatea
- Goieki
- Goitur
- Ikslan
- Goierriko Herrien Ekintza
- Injenieritzako Kontseilu Nagusia
- Haur Eskola Partzuergoa
- Goierriko Industrialdea
- Agenda 21
- Ur Kontsorzioa
- Uema
- Itsasondoko Herri Eskolako Kontseilua
- Euskal Fondoa
- Tolosako Hiltegia

UDALETXEKO OBRA

Aurreko legealdian udaletxeko berrikuntza obraren proiektua amaiturik geratu zen. Obrak hiru fasetan egitea aurreikusten da. Faseak honela daude banaturik:

1. Fasean 2. solairuko obrak, inguratzaile termikoa (fatxadana), berogailu sistema eta igogailua egitea aurreikusten da. Fase honen aurrekontua 750.000 eurora iristen da. Finantziatzeko orain arte lortutako laguntza Aldundiko Landa Garapeneko Departamentuak agindutakoa da, 450.000 euro.
2. Fasean behe solairuan kokatutako diren ludoteka eta liburutegiko obrak aurreikusten dira; aurrekontua 275.000 eurokoa da. Fase honetarako diru-laguntza eskatu zaio Eusko Jaurlaritzako Landa Garapeneko Departamentuari, aurtengo Erein 2011ko programaren kontura.
3. Fasean 1. solairuko obrak egin beharko dira. Fase honekin obra guztia amaituko litzateke. Fase hau gauzatzeko 2010-2014 aldirako deituta Landa Garapen Jasangarriko programatik eskatuko da laguntza.

Bestalde, obrak egiteko garaian, udaletxeko 2. solairuan zegoen Larrialdi pisuko altzairuak soberan geratuko direnez, horiei irtenbidea bilatzeko aldizkari hau aprobetxatzea pentsatu da. Aukera desberdinak egon daitezke, baina funtsean, etxebizitzak lehendik zuen erabilera mantenduko duten proposamenak onartu ahal izango dira. Proposamen edo eskaerarik duten herritar guztiei gizarte zerbitzuetara joateko deia egiten diegu. Orduetgia: asteazkenak, goizeko 09:00etatik 13:00etara; aurrez telefonoz txanda eskatuta (943-881170); korreo elektronikoko bidez (gizarte.itsasondo@udal.gipuzkoa.net).

DIRU-LAGUNTZA ESKARIAK:

Azken hilabeteetan honako obra eta ekintzetarako diru-laguntzak eskatu dira:

- Herri Bideen eta Iturrien Berreskuratzea. Herriko bost ibilbide seinalezatu eta herriko iturriak berreskuratzeko lanak egingo dira.
- Herri Eskola inguratzeko duen itxura konpontzeko.
- Itsasondo 2.0 aldizkariaren argitalpen gastuetarako.
- Haur, nerabe eta gazteen planak garatzeko.
- Hondakinen murrizketa lortzeko sentsibilizazio kanpaina egiteko.
- Udal informazioa elektronikoki bideratzeko datu-basea sortzeko.
- Berritasunaren aldeko ekintzetarako.
- 2011. urtean euskararen erabilera areagotzeko ekintzetarako. ■



Herriko berriak

Jadanik herritar askok udaletxeko, herriko ekitaldietako, ekintzetako berri sakelako telefonoan jasotzen dute. Izan ere, telekomunikazio zerbitzua bat kontratatu da eta hemendik aurrera, udaletxetik zabaldu nahi diren berriak, kartelak e.a. pantailatako eta egunkarietako difusioez gain, zuzenean herritarrek sakelako zein etxeko telefonoan jaso ahal izango dituzte.

Egitasmo honen helburua, herriko informazioa herritarrengana zuzenean iristea da. Badirudi, ohitura galdu dugula herrian jartzen diren karteletan begiratzeko eta teknologia berrien aro honetan, Itsasondoko Udalak ere, beste pausu berri bat eman nahi du. Informazio gehiago nahi izanez gero, gerturatu udaletxera eta bertan azalduko zaizkizue informazioa zabaltzeko modu berri honen nondik norakoak. ■



2010-2011 Ikasturteko zenbait ekintza

Ikasturtean zehar, lan artistiko ugari egin ditugu, besteak beste, puntuzko bufandak, poltsak eta txirulenzako fundak, arkatz poteak, horma-irudiak, danborrak, koadroak, bitxiak, jolasak...



Kurso amaierako azken egunean, eskolako zaharrenek jolasak antolatu zituzten txikienentzat. Primeran pasa genuen!



Hainbat irteera egin ditugu. Politik agertzen gera argazkietan ezta?



Arratsaldean, jaialdi paregabea antolatu genuen eta denetik izan genuen: Mari Kalanbre etorri zitzagun, erlea eta tximeleta lorez lore, afrikarrak, abeslari eta musikariak, oihaneko afrikar txikien koroa, txiste kontalariak eta Zea Mays taldeko kideak.



Agur eta hurrengo ikasturtera arte, bertan ikusiko gara!!!!

Egokitzapena

Kurtso berria hasi dugu, eta oraingoa interesgarria iruditu zaigu etxeari eta haurreskolako transizioari buruz hitz egitea. Beraz, hona zenbait ideia hausnartzeko.

Haurreskola erabat ezezaguna da haurarentzat; bai egiturari, sailei dagokienez, bai bere funtzionamenduari dagokienez ere. Hori dela eta, ezinbestekoa da hasierako egokitze eta ulertze lana haurreskolako oinarizko curriculumean.

Haurreskolara egokitzeko aldiak haurarentzat berezia eta ohi-koa ez den inguru berri bateko baldintzetara egokitzea esan nahi du. Haurrek zenbait aldaketa jasango dituzte; beraiek protagonista nagusiak diren inguru batetik, beste hurrekin elkarbizitzen, erlazionatzen eta partekatzen ikasi beharko duten beste inguru batera igaroko dira. Giro berri batean sartzen dira eta bertako pertsonak, lekuak eta materialak ezezagunak dira beraiarentzat.

Haurra haurreskolara sartzeko urrats garrantzitsua da haurraren bizitzan, eta nahiz eta zenbait kasutan hasieran bereizketa hori haurarentzat mingarria izan, pixkanaka-pixkanaka haurra giro berri horretara egokitu egingo da. Bereizketa horri esker, gainera, haurraren autonomia pertsonala eta sozializazio-maila areagotu egingo dira.

Haur txikiak erreferentziako pertsona izaten dute mundua ulertu eta munduarekin erlazionatzeko; ama, aita,... Pertsona horrekin lotura, erlazio primarioa, garatzen dute eta erlazio hori etorkizunean besteekin erlazionatzeko gaitasunaren oinarri izango da. Erreferentziako eta loturazko pertsona horretatik bereizteak haurraren errealtate emozionala nahastu egiten du; horregatik, garrantzitsua da bereizketa horrek haurraren inguru berezia eragina seriozki planteatzea eta haurraren negarra ulertzea.

Egokitze hori ez dute haurrek bakarrik egiten, familiekin eta hezitzaileekin ere egiten dute; prozesu horretan parte hartzen duten agente guztiak. Bereizketaren momentu zaila izaten da familientzat. Hainbat zalantza eta beldur sortuko dira, eta normala izaten da, hori ere prozesuaren zati baita. Hezitzaileek ere egokitu egin behar izaten dute: haur bakoitza desberdina da, eta bakoitza ezagutu behar da, bere gustuak eta zaletasunak zeintzuk diren jakin behar da. Goza dezan eta zoriontsu izan dadin lortu behar da lehen momentu horietan eta baita ikasturtean zehar ere.

Baliteke egokitze aldi horretan haurrak errefusatzeko-jokabideak izatea; haurrek negar egitea; bereizketa dela eta, larrituta egotea; haurrek negar ez egitea eta haurreskolara parte hartzea jarduera berria iruditzen zaielako eta gero etxean jokabide negatiboak izatea; haurrek ez onartzea pertsona ezezagunek zaintzea; haurrek parte ez hartzea; etxetik ekarritako jolasen bati gogor atxikitzea,...

Jokabide horiek guztiak normalak izaten dira egokitze aldi horretan, eta gauza normal edo natural bezala ulertzen badugu, haurrari lagundu egingo diogu egokitzealdiaren prozesu horretan. Prozesu horretan, gainera, haur bakoitzak eritmo desberdina izango du eta errespetatu egin behar dugu.

Familien jarrera oso garrantzitsua izaten da prozesu horretan. Segurtasun eza sentitzea, bereizketatik errudun sentitzea, haurra ezagutzen ez dituen pertsonen kargura uzteari buruzko kezka... Sentimendu horiek normalak eta ohikoak izaten dira, baina kontu handiz zaindu behar dira kanpoko jarrerak, haurren gain segurtasun eza ez sortzeko.

Prozesu horretan guztian:

- Familien jarrera garrantzitsua da. Gurasoak lasai eta seguru sentitzen badira, haurrak ere naturaltasunez hartuko du haurreskolara sartzeko.
- Haurrari beti egia esan behar zaio, zer gertatuko den azaldu; eta ez zaio beldurrik sartu behar.
- Haurreskola ondo pasatzeko tokia, beste hurrekin jolas egingo duen lekua dela esan behar diogu haurrari.
- Komeni da haurreskolara pertsona ezagun batek eramatea eta pertsona horrek jasotzea. Horrek segurtasuna emango dio haurrari.
- Agurtzerakoan, ez da alde egin behar haurra konturatu gabe, segurtasunez eta pozik agurtu behar da haurra.
- Agurtzeko unea gehiegi luzatzea ez da komeni izaten. Maitasunez agertzea komeni da, ezkutatu gabe eta gezurrik esan gabe. Haurrari ulertarazi behar zaio egiten ari zaretena berarentzat onena dela.
- Gustukoen duen objektua eraman dezake; txupetea, jolasa... berarentzat ezaguna den zerbait eta bere etxeari lotuta sentiaraziko duena.
- Ez da momentu egokia haurraren bizitzan aldaketak egiteko; gelaz aldatzea, esaterako. Komeni da aldaketa horiek egokitze aldia pasa ondoren egitea.
- Haurra jasotzen dugunean esaldi tristeak ekidin behar dira.
- Komeni da etxean, noizbehinka, haurreskolako egoerak eta pertsonak gogoratzea.
- Bere hezitzaileari buruz hitz egin behar diogu eta bere izena errepikatu.
- Hasieran izan ditzaketen jarrerak onartu eta ulertu egin behar ditugu: negar egitea, ikusten gaituztenean axolagabetasuna azaltzea...
- Puntualak izatea oso garrantzitsua da; haurrek ez dituzte orduak ulertzen baina berandu heltzen bazarete, abandonatu egin duzuela pentsatuko du.
- Haurreskolara sartzeko, komeni izaten da aurretik pauso batzuk ematea. Esaterako, haurreskolara jan behar badu haurrak, etxean biberioa hartzen hastea gomendatzen dugu, izan ere amaren bularretik, hezitzaileen besoetarako tartean desberdintasun handia somatzen dute. Normalean, hasieran biberioa ukatzen dute; beraz, hori ekiditeko aurreko lana egin beharko genuke.
- Bestalde, haurreskolara hezitzailea dago bera lasaitzeko gaizki dagoen momentuetan, eta askotan, hasieran batez ere, ez ditu hezitzailearen besoak onartzen. Horregatik, txupetea izaten da kontsolamendu tresna baliotsua. Beraz, hori ere etxean hartzen hastea gomendatzen dugu.
- Horrez gain, lau hilabetetik aurrera, haurrek lurrarekin kontaktuan egon beharra dute. Alde batetik, katamar ibiltzeko aukerarik aberatsena delako; eta bestetik, haurreskolara beso gutxiago daudenez, lurrean bere autonomia landuz, lasaiago egoten ikasten du.

Prozesu hori motela izaten da, eta garrantzitsua da haurra segurtasuna eta konfiantza hartzen joatea. Egokitze aldi horretan, halaber, oso garrantzitsua da familiekin haurren egokitze aldi hori kontuan hartzea eta hezitzaileengan konfiantza izatea. Hezitzaileei beren zalantzen eta segurtasun-gabezi berri ematea ere komeni da, bereizketa ahalik eta samurrena izan dadin.

Azken finean, haur guztiak egokitze-aldi honetatik pasa beharko dute haurreskolara sartu ondoren, beharrezko epea baita haurrak bere buruan duen segurtasuna eta helduek ematen dioten maitasunean duen konfiantza berriro eskuratu arte. ■



Joxe Mª Dorronsoro

Oinetako konpontzailea

Gure herrian ofizio ezberdinak izan ditugu, baina horietako asko galduta daude gaur egun. Galdutako ofizio horietako batean, Joxe Mª urte askotan aritu zen, oinetako konpontzaile, hain zuzen ere. Elkarrizketa honetan, bere bizitza eta ofizioko pasarte interesgarri ugari kontatu dizkigu.

Sarrera moduan, kontatuiezazkiguzuzure hastapenak.

Ni izatez Ataundarra naiz, San Gregorio auzoan dagoen sagardotegiko baserrian jaio nintzen orain dela 84 urte. Soldaduskara Afrikara joan nintzen 20-21 urterekin.

Soldaduska Afrikan egin zenuen?

Bai, Tetuanen hain zuzen ere, 17 hilabetez egon nintzen eta "de rosas" pasatu nuen.

**Beraz, nahiko ondo?**

Han kuartelean, Kapitain bat zegoen emaztea Soraluzekoa zuena eta euskaldunak asko maite zituen. Horrela gogoratzen naiz, Kanpamendu batzuetan, txapelketa militarrek zeudela eta bertan korrika lasterketak egiten ziren. Gu gaztetan korrika ibilitakoak ginenez, 100 metroko lasterketan apuntatzea pentsatu nuen eta nahiko ondo ater nintzen. Lasterketa horiek egiten ziren lekuan, tribunak egoten ziren eta bertan kuarteleko nagusiak esertzen ziren. Bozgorailuetatik "Dorronsoro" soldadua komandanteak ikusi nahi zuela esan zuten. Nik hasieran ez nuen gauza onik pentsatu, "zerbait txarra egingo genuen", baina guztiz kontrakoa suertatu zen, koronelak bere laguntzaile ipini ninduen eta harek zituen behar ezberdinak egiten nituen, gauza bat eraman bestea ekarri... eta pasea neukan nahi nuenean kuarteletik atera eta sartzeko.

17 hilabete horrela?

Gainera koronelak sukaldaria zeukan eta harek eskatu zidan ea lagunduko nion sukaldeko lanetan, horrela ordainetan, biok batera jaten genuen sukaldean, eta baiezkoa esan nion.

Baina soldaduskan pasarte txarrik ere izango zenuen?

Bai, gogoratzen dut behin berandu oheratu ginela eta "Estado Mayor"eko Sarjentuak gerriko baten ebillarekin jo ninduen bizkarrean, zigor moduan, eta marka utzi zidan. Baina orduan ere ondo ater nintzen; koronelak bi seme zeuzkan, 14 eta 18 urtekoak eta askotan beraiekin erdi jolasean erdi borrokan ibiltzen nintzen, eta horrela, haietako batek bizkarreko marka ikusi eta bere aitari esan zion eta harek Sarjentuari kargu hartu zion. Koronel hark esaten zuen "todo chico tiene su corazón y no se debe pegar" eta ez zitzaion gustatzen soldaduak jo eta ile motzarekin ibiltzea.

Soldaduskatik etorritakoan?

Azpimarratu nahi dut, soldaduska bolun-

tario, Marinaran egin nahi nuela, itsasoa izugarri gustatzen zaidalako, baina horretarako baldintza batzuk bete behar ziren, esaterako partidu politiko konkretu batean apuntatu eta horrelakoak, eta ni ez nengoen prest horretarako. Baina azkenean, soldaduska egin nuen lekuan gus-tura egon nintzen.

Itsasoa oso gustukoa duzu?

Bai eta horrela, soldaduskatik etorritakoan, gestioak hasi nituen itsasoa lan egiteko. Gogoratzen dut herriko apaiz Don Manuelek nola esan zidan: "Enteratu naiz Joxe M^a, bakailaoetan lan egitea gustukoa izango zenukeela, nik lehengusu bat daukat Pysbe enpresan, tesorero lanak egiten dituen eta berarekin kontaktuan jarriko zaitut". Denbora gutxira, Pasai San Juanetik etorri zitzaidan abisua, errekonozimendua egitera pasatzeko.

Bakailaoak arrantzatzen ibilitakoa zera?

Bai, gainera berehala untziratzea tokatu zitzaidan. Terranova aldera joaten ginen eta bertan 5-6 hilabete pasatzen genituen 1.000 tona bakailao hartu arte, kantitate horretara lehenago iritsiz gero, azkarrago itzultzen ginen. Normalean urtean bi kanpaina egiten ziren. Terranova aldera "completamente mareado" joaten nintzen, han 5-6 hilabete pasa eta bueltarakoan, berriro "completamente mareado" etortzen nintzen.

Ez zenuen bidai eroso egiten beraz?

Ez, eta horrela itsasontziko kapitainarengana joan nintzen eta harek, Debako euskaldun jatorrak, esan zidan: "Joxe M^a, ez zaitut ondo ikusten, baina lasai hau berria zarelako da", nik ez dakit hura entzun nahi nuen edo, baina poztu ninduen eta horrela bakailaotarako bigarrenko kanpainarako apuntatu nintzen, baina berriro igual, bai joaterakoan eta bai etortzerakoan "completamente mareado", eta horrela gehiago ez joatea erabaki nuen.

Bakailaoen ondoren?

Handik etorri eta segituan lanean hasi nintzen Sarasola fabrikari, ez mina barruan. Han errelebo lanean aritzen nintzen, goizeko 6:00etan sartu eta 12:00etara arte, zegoen lanaren baitan aritzen ginen. Horrela arratsaldetan zapatero ofizioa ikasten hasi nintzen.

Norekin hasi zinen zapatero ofizioa ikasten?

Ataunen bazegoen zapatero bat, Beasainen lan egiten zuena, 500 pezeta kobratu zizkidan aprendiz bezala egoteko, garai hartan diru asko zen.

Zenbat denbora aritu zinen aprendiz?

Gutxi gorabehera 2-3urte. Sarasolako lanak arratsaldeak libreago uzten zizkidanez, arratsaldero joaten nintzen ofizio berria ikastera.

Eta zure kontura?

2-3 urte horiek pasa ondoren, konturatu nintzen bazela garaia nire bidea jorratzen hasteko, eta 30 urte nituenetik 75 urte bete arte, hau da, 45 bat urtetan aritu nintzen oinetakoak konpontzen. Emaztea gaixo ipini zenean erabaki nuen dena uztea. Gogoratu, ofizio hori neukan bitartean Sarasolan aritzen nintzela lanean eta ondoren Beasainen Fundiciones Echevarria fabrikari ere bai, han erreleboak goizean edo arratsaldean izaten ziren, libre gelditzen zitzaidan denbora hartzen nuen oinetakoak konpontzeko.

Non zeneukan lantokia oinetakoak konpontzeko?

Nire kontura hasi nintzenez, etxeko garajea prestatu nuen nire ofizioa aurrera eramateko leku bezala.

Beste herrietan, ba al zegoen oinetakoak konpontzen aritzen zen jenderik?

Bai, herri gehienetan, adibidez Zaldibian zegoenak berarekin lan egiteko proposatu zidan, baina ezezkoa esan nion. Itsasondan bazegoen oinetakoak konpontzen zituen beste pertsona bat, Remigio Moreno, baina berarekin gutxitan egokitu nintzen.

Urteak pasatu ahala oinetakoak konpontzen diferentziarik sumatu zenuen?

Bai, asko eta gehienbat pegamenduan, azkeneko urteetan erabiltzen nituenak oso onak ziren eta lana izugarri errazten zuten. Hasieran erabiltzen nuen materiala larrua izaten zen eta ondoren hasi zen sartzten plastikoa edo material sintetikoa. Larrua lantzerakoan lodiagoa, meheagoa, flexibleagoa... egoten zen, segun zein oinetako landu nahi zen.

Zein oinetako mota konpontzen zenuen?

Ba edozein oinetako, esaterako abarkak baziren garbitu, disoluzioa eman, iskinak konpondu, errematxeak jarri eta aurrera. Garai haietan ez zegoen gaur egun daukagun aukerarik eta jendeak zeukanarekin aurrera jo beharra zeukan, horrela oinetakoak konpondu beharra izaten zen.



Joxe Marik erabiltzen zuen makina.

Gehien eskatzen zizkizuten konpontetak?

Zorua, takoiak... askotan izerdiarekin larrua gogortu eta elkortu egiten zen, josten hasi eta apurtu egiten ziren, hura ez zen atsegina izaten. Modu batera edo bestera, baina oinetako guztiek zeukaten soluzioa, orduan behar handia zegoen eta dena aprobetxatzen zen.

Gaur egun oinetako konpontzaile gutxiago dago, zergatik?

Gehien bat esku lana oso garesti ateratzen delako eta oinetako gehienak sintetikoa direnez, ez du pena merezi konpontzea. Oinetakoa denborarekin deformatu egiten da eta zaila da hura konpontzea, jendeak nahiago du berria erosi. Zapatero ofizioa pixkanaka galtzen ari da.

Egin zenuen lanik bereziena edo zailena?

Oroitzen dut hernia inginala zeukan pertsona batek, faja ortopedikoa erabiltzen zuen eta larruzko bultoa behar izaten zuen hernia hori oprimitzeko eta ez ateratzeko. ■

Eta orain bukatzeko hiru galdera motz.**Zer duzu gustuko Itsasondan?**

Orokorrean dena gustatzen zait.

Zer botatzen duzu faltan Itsasondan?

Ez dut ezer faltan botatzen.

Inoiz izan duzun amets bat?

Ez dut ametsik, bere garaian itsasorako neukan ametsa probatzeko aukera izan nuen.



Oinetakoak konpontzen.



1992-IX-4ean Iruñako Labriten Euskal Herriko azpi-txapeldunaren saria jasotzen.

Ikus dezaket, kartetan jokatzeko afizioa duzula.

Bai, musean, seisetan, punttuan eta eskoban jokatzen genuen. Batzuetan galdu eta beste batzuetan irabazi. Guk, emazteak eta nik, eskoban jokatzen genuen gehien eta poliki moldatzen ginen. Esate baterako, 1991an Gipuzkoako txapeldunak atera ginen, finala Donostian jokatu eta gero. 1992an Iruñera joan ginen Euskal Herriko txapelketa jokatzerako eta bertan bigarren gelditu ginen, finala galduta.



Zabor biltzea sistema berriaren lehen emaitzak (2011ko iraila)


Ekainaren 14an zabor edukiontzi berdeak desagertu egin ziren gure herriko kaleetatik, zaborra biltzeko sistema berriari bide eginez.

Sistema berriarekin lehen urratsak eman dira jadanik, eta lehen balorazioa egiteko unea iritsi da. Lehenik eta behin, herritarren gehiengoak eginko harrera ona eskertu nahi dugu: ESKE-RRIK ASKO hondakinak biltzeko modu berri hau ahalbidetu duzuelako.


Artikulu honen bidez, labor-labor, sistema berriak eman dituen emaitza nagusiak eta sistema hobetzeari begira egingo diren moldaketen inguruko argibideak eman nahi dizkizuegu:

Emaitza nagusiak:

- Zabortegira doan hondakin kopuruaren konparaketa: sistema zaharrean (errefusa edukiontzi berdera botatzen zenean) astero batez beste 2.740 kg zabor jasotzen zen (ekaineko lehen asteetan). Sistema berrian, ordea, (errefusa kubo grisetan jasotzen denetik alegia) batez beste astean, 212 kg zabor jasotzen da. Horrela, sistema berria martxan denetik zabortegira doan zabor kopurua %92an murriztu dela esan daiteke.



- Sistema berriaren erabiltzaileen datuak: 280 etxebizitzetatik 30 hutsik daude; beraz, 250 etxebizitzetan gainean:



- Lehen balorazioa ONA dela esan badaiteke ere, familien heren batek sistema berri hau oraindik erabiltzen ez duela jakinik, hau aztertzen eta hobetzen jarraitu beharko da. Familia horiekin harremanetan jarriko gara metodo hau ez erabiltzearen zergatia ezagutzeko eta zuzentzeko.
- Une honetan, Itsasondon, AUTOKONPOSTAIA egiten duten 52 familia ditugu guztira. Portzentaje berrantaltua da: autokonpostaia egin dezaketen familien erdia (%56a), Europako mailan. Kontutan izanik konpostagailu bakoitza 3,5 pertsonak erabiltzen dutela, batez beste bakoitzak urteko 100 kg. materia organiko botatzen duela, denen artean 18,5 tona desbideratzen dute. Ez da berriketa gero!

Sistemaren hainbat aldaketa:

- Aurki edukiontzi marroiak giltzarekin ireki beharrean TXARTEL batekin irekiko dira.
- Horrekin batera, POLTSAK BANATZEKO MAKINA bat jarriko da udaltxean, eta txartel horrekin berarekin poltsa konpostagarriak lortuko dira debalde.
- Traste zahar txikiak (garbigunera eraman beharko liratekeenak) biltzeko 3 edukiontzi jarriko dira herritarren eskura udaltxean (tresnak elektriko, metalezkoak, jostailuak, erratzak, dvd-ak... botatzeko), bulego ordutegian.

- Hondakinak minimizatzeko eta zenbait herritarren arazoari erantzuna emanez (arrandegitako papera), udazken aldean tupper-ak banatuko dira sistema berriaren erabiltzaileen artean.
- Sistema berriaren erabiltzaileek urtea bukatu baino lehen sari bat jasoko dute.

Eta gogoratu:

- Zabor puntuetan jarritako EUSKARRietan ONTZI GRISA zintzilikatu behar da eta ez poltsa. Ontzi honetara birziklatzen ez diren zaborrak botako ditugu bakarrik.
- Ontzi grisa astelehen iluntzetan bakarrik atera daiteke (19.00-22.00).
- Gogoratu edukiontzi marroian materia organikoa soilik bota daitekeela. Hau errespetatzea nahitaezkoa da, bereizketa ondo egin dutenen lana ez zapuzteko.
- Dauzkazuen kexa, ekarpen, proposamen eta abarrak egiteko deitu 902 090 071 telefono zenbakira (9.00-18.00) edo etorri(Itsasondoko Udalean egunero dagoen informazio bulegora 13.00-14.00).

Guztion artean sistema egokitzea eta Itsasondo hondakinak birziklatzen eredu izatea lortuko dugu!!


18-30 Urte bitarteko gazteen proiektua Itsasondon emantzipatzea: gazteen eztabaida saioak

Hurrengo hilabetetan, Itsasondon aurrekaria izango den proiektu bat jarriko da abian. Hain zuzen ere, Udaleko haur, nerabe eta gazteen parte-hartze zerbitzuetik martxan jarriko den egitasmo berri eta interesgarri bat.

Jarraian aurkezten dugun proiektu hau Itsasondoko haur, nerabe eta gazteen parte-hartzea sustatzeko zerbitzua sortu eta errotzeko martxan jarritako ibilbidearen baitan kokatzen da. Azken lau urteotan, hamaika pausu eman dira herriko haur, nerabe eta gazteei Itsasondon bertan aisialdiaz gozatzeko aukera ematearekin batera, eskaintza hezigarria eskaini ahal izateko; eta era berean, herrian eta haren dinamizazioan parte hartuko duten nerabe eta gazteak sustatu ahal izateko.

Zerbitzu horren bidez eman nahi den eskaintzak jarraian aurkezten ditugun helburu orokorrak ditu. Adin tarte bakoitzari egokitutako azpi-helburuak eta lan egiteko erak zehaztu baditugu ere, hemen, modu iraunkor eta jarraian zerbitzuaren helburuak:

- Autonomia eta erantzukizuna: Nortasun pertsonalaren garapena eta gizartean toki aktiboa izateko gaitasuna bermatzea.
- Haur, nerabe eta gazteengan eskumenak garatzea, autonomia pertsonalaren eta kolektiboaren kotak lortzeko, guztiek aukera bereberekin (eskumenak: arrazoizko jakin-mina, komunikazio enpatikoa, errespetua etab.)
- Partaidetza kolektiborako sentimendua garatzea.
- Gazteei euren aniztasunean laguntzea, euren gizartean parte hartzea modu eta forma ezberdinak onartuz.
- Herriko parte-hartzea duintzea.
- Tokiko eremua erakundeen elkarritararako eremu pribilegiatu gisa hautatzea.
- Eremu publikoarekiko kezka sortaraztea.



Itsasondoko 18-30 urte bitarteko gazteekin garatu nahi dugun proiektu proposamen horrek, hiru saio parte-hartzaile aurrekusten ditu. Saio horiek, prozesu luzeago baten lehen urrats izan nahi dute, baina, hala ere, jakitun gara prozesu bat abiarazteko ezinbesteko baldintza Itsasondoko gazteek prozesu horren partaide izateko agertutako borondate eta konpromisoa beharko lukeela izan. Beraz, proiektu horretan hiru saio egitea proposatzen dugu, azken saioan guztion artean, landutako edukiak bere horretan utzi, edota lanketa kolektibo luze eta sakonago baten baitan txertatuko ditugun erabaki ahal izateko.

- Proposatutako saio horien helburuak ondorengoak lirateke:
- Itsasondoko gazteek haien emantzipazio bidean izan ditzaketen beharrak kolektiboki identifikatzeko espazioa ahalbidetzea.
- 18-30 urte bitarteko Itsasondoko gazte guztiei euren errealitatearen inguruan kolektiboki hausnartzeko aukera eskaintzea.
- Bertan, premia horiek asetzeko egon daitezkeen aukerak aztertu ahal izatea.
- Gazteen premiak Itsasondoko Udal egituraren baitan ezagutaraztea eta presente egitea.

Saio horiek 2011. urteko udazkenean hasiko, urria, azaroa eta abendua bitartean. Hiru saioak jarraian egitea proposatzen dugu, bata eta bestearen artean hilabeteko tarte utziz. Saioak Gaztelekuan bertan antolatuko ditugu, espazioa dinamika beharrezko dituenen baliabideen arabera atonduz.

Saioetan landutako eduki eta adostasunak aktan jasoko dira eta hurrengo bileraren deialdiarekin batera helaraziko zaizkie parte-hartzaileei. Udalean ere eskuragarri egongo dira, nahi duen orok saioan landutakoa ezagutu dezan.

Saioak Itsasondoko Sustapen Suspertzailak eta Bulego Teknikoko aholkulariak diseinatu eta dinamizatu dituzte, eta bertan landutakoen sistematizazioa ere haien ardura izango da. ■

Uda kanpaina

Aurtengo udan ere udalekuak egin dira Itsasondon. Haur kopurua kontuan izanik, inoiz baino arrakasta gehiago izan dute. 3-6 urteko hamalau haur eta 6-12 urteko zortzi haur itsasondoar izan ditugu. Hiru astez egon gara bi begirale; Maialen zahartxoekin eta Saioa gaztetxoekin, baina eskertzekoa da praktiketan izan dugun Mikel azkoitiarraren laguntza ere.

Urtero bezala, ekintza ugari egin ditugu eta haurrak oso motibatuta ikusi ditugu. Arrakasta izandako ekintzetako batzuk Ordiziako igerilekura irteera, San Ferminen ospakizuna, sukaldaritza tailerra... izan dira.

Nabarmenezkoa da bi talde hauen elkarrekintza eta harreman ona, eta baita ekintza horiek burutzeko erabili ditugun guneak ere (gazte-lokala, liburutegia...).

Bukatzeko, eskerrak udaleku hauek aurrera eramateko lan egin duten pertsona guztiei.

Maialen, Mikel eta Saioa ■



Raftinean parte hartu zuen taldea, Itsasondo eta gaztelekuko nerabeek osatua.

Udako ekintzak

Aurtengo udan ere, udaletxeko haur, nerabe eta gazteria sailak Itsasondoko nerabeentzat ekintza desberdinak antolatu ditu. Bitxigintza eta henna tailerra, burutu ziren gaztelekuan. Bertan, nerabeek apaingarriak, bitxiak eta hennazko tatuajeak egiteko aukera izan zuten. Azken hori, Zegamako gaztelekutik etorri ziren nerabeekin batera egin zuten.

Sukaldaritza tailerra ere egin zen gaztelekuan. Nerabeek, paella goxo bat egiteko aukera izan zuten eta gero hori dastatuz, bazkari ederrea egin zuten.

Azkenik, Zegamako eta Itsasondoko gaztelekuak Rafting egitera joateko irteera prestatu zuten. 36 lagunek autobusa hartu eta Kanbora joan ziren. Bertan goiza pasa, herria ezagutu eta bazkaldu zuten. Arratsaldean, Bidarraira joan eta Errobi errekan rafting egiteko aukera izan zuten. Eguna primerakoa izan zen eta ederki pasa zuten nerabeek eta baita hezitzaileek ere.

Ekintza guztiak positiboki baloratzen dira, nerabeek gustura parte hartu dutelako eta uztailean ekintza berri eta desberdinak egiteko aukera izan dutelako.



4 nerabe rafting egiteko prest.



Henna tailerra Gaztelekuan.



Paella bazkaltzen gaztelekuan.



Gaztelekua

Herriko festen ondoren, gaztelekuak ateak irekiko ditu berriro. Udarako atsedena eta gero, aurtengo ikasturterako proiektu ugarirekin gatoz. Horien artean, esanguratsuenetako bat skate egiteko ranpena izango da.

Herriko nerabe batzuei kirol hau asko gustatzen zaiela eta herrian ranpa batzuk nahi zituzten. Horrela bururatu zitzaigun, interesgarria izan zitekeela herriko nerabeek beraiek eginiko materiala sortzea. Joan den ikasturtean, irteera desberdinak egin ditugu, skate egitera, ikustera beste herrietan nola egin dituzten eta bilera batzuk egin ditugu erabakitze-ko nolako materiala egingo dugun.

Ikasturte honetan, ranpa horiek egingo ditugu. Horretarako herritarren laguntza ere beharko dugu, eskulan handia izango delako, eta beraz, interesa duen inork parte hartu dezake. Zeintzuk ordea? Egurra lantzen, galdaragintza edo pintatzen baldin badakizu, herriko nerabeek gustura hartuko dute zuen laguntza.

Horrez gain, nerabeentzako ekintza ugari egingo dira, urtero bezala. Oporraldian ekintzak, tailerrak, irteerak, txapelketak, hitzaldiak... 11 urte badituzu eta ongi pasa nahi baduzu, animatu eta etorri gaztelekura!!! ■

San Juango Ermita

Itsasondo eta Ordizia artean, bi herrien arteko mugan dago San Joan de Letranen omenez eraikitako ermita. Hori ez zen izan, ordea, ermitaren hasierako kokalekua. Ermitak izan dituen gora beherez eta herritarrentzat izan duen garrantziaz hitz egin dugu auzotarrekin. Elizaren aldamenean, itzaletan eserita aritu gara tertulian.



Ermita Erromesen pausaleku

1544. urtean, Antonio Mendiola eta Juan Perez de Berastegi apaiz gipuzkoarrak Erroman zirelarik, ermita egiteko baimena eskatu zuten. Hala, ia ezinezkoa zirudiena egia bihurtu zen. Erromako basilika berri-zeko diruaren truke, Basilikaren osagarria izango zen kapera edo ospitale bat eraikitzeke lizentzia lortu zuten. 1582an eraiki zuten San Joan de Letranen omenezko ermita. Badirudi lehenengo eliza hura ospitale bat izan zela. Santiagora zihoazen erromesek bertan pasa zezaketen gaua, eta, ogia eta sagardoa ez zuten falta izaten. Meza ere egiten zen, eta gainera, ateratako dirua nahi bezala erabili zezaketen ermitako jabeek, herriko apaizari edo Erromari baimenik eskatu gabe.

Historian zehar pasarte bitxiak izan dira. 1634. urtean esate baterako, Iruñeko apezpikua eliza bisitatzera joan eta atea itxita aurkitu zuen. Haserretu eta eliza botatzeko agindu zuen orduan.

Garai hartan, Martin Perez de Artano eta haren emaztea ziren elizaren jabeak. Itsasondoko apaizekin ez zuten batere harreman onik eta euren semea jaio zenean ere ez omen zuten bataillatu. Arrazoi horiengatik, elizak exkomulgatu egin zituen eta kartzelan sartu zituzten senar-emazteak. Ermita eskuz aldatzen joan zen belaunaldiz belaunaldi. Gaur egun, Lezama Leguizamon sendiarena da.

Jatorrizko ermita Sarasolatarren txaletaren parean egon zen, 1860. urte ingurura arte. Orduan, bota egin zuten, tren-bidea bertatik pasako baitzen.



Grabatuaren Egilea: Paul-Gustave Dore (Estrasburgo, 1832 - Paris, 1883).
Data: 1862.
Iturria: Le Tour du Monde (nouveau journal des voyages XXV), Paris, 1873, 384 orrialdean. ["Voyage en Espagne. Les provinces basques", artikuluaen barruan].

Ermita berria, bi herrien arteko muga-lekuan

Kapera berria non egin erabakitzerakoan, tira-birak izan ziren Itsasondo eta Ordizia artean, biek nahi baitzuten eurentzako. Azkenik, bi herrien arteko mugan altxatu zuten, eraikin zaharreko harriak erabiliz. Ermita gaur egun ezagutzen duguna baina txikiagoa zen eta denborarekin handituz joan ziren.

Eraikinaren kanpoko aldean, atzeko partean, hilerri txiki bat dago. Auzokoek kontatu digutenez, garai batean irekita zegoen eta nahi zuena sartu eta irten zitekeen bertatik. Hilerrian garai bateko jabeen familietako sei hilarri daude.

1990ean, kazkabar jasa gogor batek herriko hainbat etxe eta eraikinetako teilatuak txikitu zituen, baita ermitakoa ere. Ermitan kalte handiak izan ziren eta konponketa lanak erdizka egin zituzten. Elizaren sabaia eraberritu bazuten ere, zorua bere horretan utzi zuten zaharberritu gabe. Egoera hartan eliztarrak sartzea arriskutsua zenez ermita itxi egin zuten.

San Joango ermita auzotarren bihotzean

San Joango ermita auzotarrentzat berezia izan da beti, baita gainontzeko herritarrentzat eta Ordiziako bizilagunentzat ere bai. Auzotarrek kontatu digutenez, aste santuan gurutz bidea egiten zen ermitara eta jende asko joaten zen, " jendea ez zen bertan kabitu ere egiten". Sasoi hartan, herriko apaizak Itsasondon ez ezik, San Joanen ere ematen zuen meza eta eliza beteta egoten zen.

San Juan eguna ere berezia izaten zen auzoan. Aparteko meza egiten zen eta hamaiketakorik ere ez falta izaten.

Bataio eta jaunartzerik egiten ez bazen ere, herritar asko ezkondu da eliza txiki horretan, familia askotan belaunaldiz belaunaldi pasa den ohitura izan da. 1990az geroztik, ordea, ermitan bakar-bakarrik geratu dira San Joan Ebanjeliarraren, Teresako Amaren eta Karmengo Amaren irudiak. Ea Lezama Leguizamon sendiak ermita guztiz zaharberritu eta bertako altxorrek herritarren eskura jartzen dituen. San Joaneke gure eskaria entzun dezala.■



San Juango ermita 60. hamarkadan.



50. hamarkadan ezkontza bat San Juango ermitan.

Edurne Ayuso

Kurtso berria

1.

Zein ikasketa edo ikastaro egiten dituzu edo gustatuko litzaizuke egitea?

2.

Zergatik aukeratu duzu ikastaro hori?



Mari Paz

1. Ni urtero bezala pilatesera joango naiz, Itsasondon bertan aukera dudalako.
2. Oso gustura joaten naiz, bosgarren urtea da jadanik joaten naizela. Oso lagungarri zait bizkarreko arazoentzat, eta baita muskulu guztiak ondo luzatzeko ere.



Aitor Garmendia

1. Soinu-hizkuntza ikasteko asmoa dut.
2. Nire lanerako ongi etortzen zaidalako eta gainera gustuko dudalako.

Nerea Martinez

1. Nik frantsesa ikasten hiru urte daramatzat, Ordizian, oso gustura joaten naiz.
2. Interesgarria eta garrantzitsua ikusten dudalako hizkuntza ezberdinak jakin eta ezagutzea.



Maddi Alberdi

1. Magisteritza ikasketak egin behar ditut, Donostian, eta autobusez joango naiz egunero. Autoko gida baimena ateratzen ere ari naiz eta monitore titulua ere bai.
2. Oso gustuko dudalako mundu hori, asko gustatzen zaizkit haurrak.



Artetxe inguruan jarritako erlauntzak.

Erleak Itsasondoko biodibertsitatearen zaintzaile

Jakina da Itsasondoko Udalak bertako ondare naturalaren kontserbaziorako eta berreskurapenerako, azken urteetan, hainbat ekimen aurrera eramán dituela: espezie autoktonoen landaketak, landa-eremuko fruta-arbolen landaketak eta landare espezie exotikoan erradikazio lanak, beste batzuen artean. Baina azken hilabete hauetan, bada herrian burutu den ekimen berri bat: lau erlauntza ipini dira Artetxe baserriaren inguruan. Izan ere, erleak animalia bereziki garrantzitsuak kontsideratzen dira ekosistemen osasun egokiaren mantenuan eta flora zein faunaren biodibertsitatearen emendapenean.

Erleen polinizazioaren garrantzia

Polinizazioa, lore baten estaminetan (loren atal arra) sortzen den polena, lore bereko edo beste bateko pistiloraino (lorearen atal emea) garraiatzea da. Beraz, polinizazioa ezinbesteko urratsa da landareen ugalketan.

Naturan, bide bat baino gehiago dago polena landare batetik bestera garraiatzeko. Landare batzuen polena uraren bitartez

garraiatzen da, beste batzuen haizearen bitartez, eta beste batzuen kasuan, polena garraiatzailearen erantzuleak intsektuak izaten dira.

Intsektu polinizatzaileen artean, erlea da polinizatzaile eraginkorrena. Erleak loreetara euren elikagaiaren (nektarra) bila joaten dira eta hori xurgatzen ari diren bitartean polena gorputzean itsasten zaie. Erlea lorez lore joanaz egunean zehar lore kopuru handia polinizatzen du.

Ekosistemari erreparatzen badiogu, erleak loreak polinizatzean, hazi, fruitu eta landare gehiago ekoizten dira, azken batean, elikagai gehiago, eta horrek aldi berean animalia gehiagoren mantenua ahalbidetzen du. Ondorioz, kate trofikoaren bidez, ekosistema osoak ateratzen du etekina.

Ekosistema naturalen mantenuan ez ezik, erleen polinizazioak baserri ingururako ere onura suposatzen du. Erleen polinizazioaren ondorioz hazi eta fruitu kopurua handitzeaz gain, polinizazio egokiak hazi eta fruituen kalitatea ere hobetzen du. Horrek, landa-inguruan landatu ohi diren sagarrondo, udareondo, aranondo



eta beste hainbat fruta-arboletan fruitu osasuntsuagoak lortzea ahalbidetzen du, fruitu handiagoak eta itxura hobegokoak emanez.

Itsasondoko erleen mantenua

Artetxe baserri aldameneko lau erlauntzen mantenerako, Udalak, Aranzadi Zientzia Elkarteko Botanikako sailarekin elkarlanean, akordio berezia egin du. Akordio horren bitartez, interesa duen edozein erlezain erlauntza horien zaintzaz eta bertatik ateratako etekinaz arduratuko da. Akordio horren epea hiru urtetakoa da, eta epe hori pasa eta gero, erlezainez aldatzeko aukera egongo da.■



ongizatea

Etxez etxeko laguntza zerbitzua

Adineko jendeak nork bere etxean bizi nahi du, familiarengandik eta ohiko gizarte inguruetatik hurbil, eta horretarako, lagungarria da "Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua". Horren bidez, adineko jendea bere eguneroko zereginak egiten laguntzen zaio, bakoitzaren beharren arabera bizi kalitatea hobetuz eta itsasondotik, bere etxe edo baserritik, mugitu gabe.

ZERBITZUAREN DEFINIZIOA

Adinekoaren edo/eta menpekotasuna duen pertsonaren etxean/baserrian bertan, horren zaintza pertsonala eta etxeko lanak egiteko zerbitzua da, eta helburu hauexek ditu:

- Pertsonak bere etxean bizitzen jarrai dezan bitartekoak jar-tzea
- Eguneroko jardueretan laguntzea
- Ohiko zainzaileei laguntzea
- Isolamendua saihestea
- Elkarbizitza hobetzea
- Sortzen diren behar berriak antzematea

Zerbitzuaren barruan sartzen EZ diren egitekoak: lagun egitea eta paseatzea, etxe berean bizi diren beste pertsonen laguntzea, etxeko beste kideei mesede egitea, osasun arloko jarduerak, konponketa garrantzitsuak, garbiketa bereziak e.a. Laguntzaren egitekoak gizarte langilearekin batera eta itsasondoko udal araudiari jarraituz zehaztuko dira kasu bakoitzean.

ORDUTEGIA ETA TOKIA

Zerbitzua egunez ematen da asteleheneetik ostiralera, urte osoan zehar eta etxez etxeko langilea pisu edo baserri partikularretara joaten da onuradunak bertan daudenean. Kasu berezi batzuetan, zerbitzua asteburuetan eskaini ahal izango da.

NORK ESKA DEZAKE ZERBITZUA?

Itsasondon erroldatuta egonik, egunerokoak egiteko eragozpenak dituen eta menpekotasun balorazioa egina duenak, eta bere etxean bizitzen jarraitzeko moduan dagoenak eska dezake zerbitzua. Eskatzaile gehienak 65 urtetik gorakoak dira, baina beste pertsona batzuk ere jaso dezakete:

- Bere kasa moldatzeko zailtasunak dituzten 60 urtetik gorako pertsonak
- Ezgaitasunen bat duten pertsonak eta horrekin bere kasa moldatzeko zailtasunak dituztenek
- Beren familiek zaindu ezin dituzten eta behar duten arreta eman ezin dieten adingabeek

Bestelako egoera zailetan aurkitzen diren familiak gizarte zerbitzuetara gerturatu eta bertan baloratuko da programa honen beharra eta egokitasuna.

PROZEDURA ETA EKARPEN EKONOMIKOA

Erabiltzaileak dituen diru sarreren, ondasunen eta aurrezkiaren arabera, zerbitzuaren kostuaren zati handiagoa edo txikiagoa ordaindu beharko du. Eman beharreko pausoen eta entregatu beharreko dokumentazioaren berri itsasondoko Gizarte Zerbitzuetan emango zaizue, baita ekarpen ekonomikoaren kalkulua egin ere.

INFORMAZIO GEHIAGO NAHI BADUZU, DEITU ITSASONDOKO GIZARTE ZERBITZUETARA! ■



Deskargak komunisten gauzak dira.

Dagoeneko denok badakigu zer den legala edota ilegalak gure ohiko bizitzan. Hala nola, lapurretak gaizki dago. Baina, lapurretak interneten gerta ahal daitezke? Gezurra badirudi ere, eta bat baino gehiagok jakingo du, lapurretak mundu birtualean ere (hacker famatuak) gertatzen dira. Baina hori beste momentu batean argituko dut.

Jende askok galdetzen duena zera da: Legala edo ilegalak da internetetik deskargatzea? Laburki erantzunda: bai eta ez.

Software komertzial bat baldin bada (windows, panda, saltzen diren jokoak...) deskargatzen duzuna, ilegalak da deskargatzea, hau da, derrigorrezkoa da erosketak egitea (nahiz formatu digitalean edo formatu fisikoa izan). Salbuespen bakarra "freeware" izeneko programak dira. Freeware programak ordaindu beharrik ez duten programak dira.

Baina zer gertatzen dira software ez diren fitxategiekin? Hau da, musikarekin, pelikulekin, liburuekin etab.

Bada, legalak da multimedialak diren fitxategi guztiak deskargatzea, denok baitaukagu aukera "kopia pribatua" deritzon akzioa hartzeko. Kopia pribatuaren legeak zera esaten du: guztiz legalak da edozein fitxategi digital, baldin eta bere edukia kulturala, artistikoa edo soziala bada. Baina deskargatutako fitxategi horiek ezin dira inoiz erabili irabaziak lortzeko. Hau da, norbaitek pelikula bat deskargatzen badu, ezin du pelikula hori CD batetan grabatu eta saldu; baina bai norbaiti oparitu.

Dagoeneko pixka bat argitu dugu zer material informatiko deskargatzea internetetik den legala edo ilegalak. Baina legalak dira deskargatzeko erabiltzen diren programak?

Bai, guztiz legalak dira. Erabiltzaile arduraren barruan sartzen da legalki edo ez jokatzen duen rola. Programa horiek bakarrik erabiltzaileak dituzten datuak elkartzen ditu, ez du bereizten konpartitzen diren fitxategiak konpartitu daitezkeen edo ez. Ez du ulertzen lege konturik.

Konpartitzeko programak Emule, Ares, DC, Torrent etb. bezalakoak legalak dira. Baina gaur egun badaude web/zerbitzariak deritzon web orrialdeak. Web orri horietan erabiltzaileak zerbitzari batetan bere fitxategia igotzen

Ilegalak edo legalak?



Jokoak, pelikulak, etab. lortzeko, internetera jotzen dugu, baina deskargatzen dugun fitxategia edota deskargatzeko akzioa bera legalak al da?

du. Behin fitxategia igo eta gero, interneteko helbide bat ematen dio, non helbide horretatik fitxategia iritsi daitekeen deskargatu ahal izateko. Behin fitxategia igota, erabiltzaileak egin behar duena zerbitzariak emandako helbidea bere lagunei pasatzea da. Adibide oso famatua da www.megaupload.com web orrialdea.

Web/zerbitzari gune horiek ere ez dute ulertzen lege konturik, baina filtro gogorrek pasatzen dituzte. Askotan, zerbitzariak deskargatzeko helbideak hautsi egiten dituzte, zerbitzariaren administratzaileak anomalia edo legalki erregularra ez den zerbitzu ikusten duela, baina kasu oso bereziak izaten dira.

Laburtuz, lizentzia bat eskatzen duten programa informatikoak (sistema

eragileak, antivirusak...) ilegalak dira deskargatzea, salbuespen bakarrak FREE programak dira, hau da, doako programa. Beste guztiak (multimedialak fitxategiak, hala nola musika, pelikulak...) guztiz legalak dira "kopia pribatuko eskubidea" legerari esker, baina beti ere irabaziak ateratzeko asmorik gabe.

Idatzi honen bidez deskargen gaiaren inguruko argipenak eman izana espero dut, hemendik aurrera norbere ardura da nolako erabilera emango dion programa mota horiei. Badakizue, edozein zalantza baduzue eta zerbaitek galdetu nahi baduzue hauxe duzue nire helbide elektronikoa: djashbazaga@hotmail.com

Hurrengo zenbakira arte. ■




I. Ibilbidea

Itsasondo-Santamaina-Itsasondo

Iraupena: 4 ordu eta 10'

Ibilbidea:




- Itsasondo- Zumizti: 60'
- Zumizti- Burnigurutzeta: 60'
- Burnigurutzeta- Santamaina: 30'
- Santamaina- Berostegi: 30'
- Berostegi-Itsasondo: 10'



Deskribapena: Gaurko ibilaldia hasteko, Berostegi aldera abiatuko gara. Auzoan, G.R.35-a adierazten duten arrasto zuri-gorriak jarraituko ditugu; zati hau ibilbideko atalik aldapsuena da. Arrastoei jarraituz, Zumizti gainera iritsiko gara. Bertatik Murumendi, Legorreta...ederki ikusteko aukera izango dugu.

Arrastoei jarraituz, Burnigurtzeta mugarrira iritsiko gara. Hemendik, Santamainara doan errepidea gertu dugu. Honi jarraituz errez iritsiko gara auzora; leku paregabea da, bista ederrarekin hamaiketako on bat egiteko.

Itzultzeko, jatetxearen eskubitik jaisten den pistari jarraituko diogu; pista horrek Zubin erreka eramanango gaitu. Errepideari jarraituz, berriro Berostegi auzora iritsiko gara, eta hemendik Itsasondora iristeko aurrez eginiko bideari jarraitzea besterik ez zaigu geratuko. ■





“Bizi nai” jubilatuta egoitza berriaren lehen urtea

Urtebete igaro da Bizi Nai Jubilatuta Elkarteak egoitza berria martxan jarri zuenetik. Bertan biltzen diren bazkideek urte honen balorazio positiboa egin dute, egoitza ezin hobe egokitu dagoela azpimarratuz, bai espazio aldetik, baina baita egoitza horniturik dagoen moduagatik ere.

Urtean zehar jarduera sozialak, aisialdikoak eta kulturalak antolatu eta martxan jarri dituzte, beti ere bertako bazkideen partaidetza bultzatuz: egun osorako irteerak, hitzaldiak, ibilaldiak, joku txapelketak... Guzti hori antolatzeaz 102 bazkideetatik 11 kidek (9 emakumezko eta 2 gizonezko) osatzen duten batzordea arduratzen da. Kide bakoitzak bere zereginak finkatuta ditu.

Bestalde, jubilatuta aurtengo irailaren 25ean “XXXIV. Jubilatuta Eguna” ospatzeko antolaketa lanetan dabilta. Egun hori Itsasondoko 65 urtetik gorako herritar orori zabalduetako eguna izango da eta bazkarirako izena emateko egunak ere zehaztu dituzte batzordeko kideek: irailaren 5etik 23ra bitarte, Bizi Nai egoitzan.

Egun horretarako egitaraua honako hau da:

- Goizeko 11:00etan: meza
- Eguerdiko 14:00etan: bazkaria
- Bazkal ostean: sari banaketa



Hemendik aurrerako asmoak ere garbi dituzte, Elkartearen ibilbidea jubilatuta gazteagoen esku izatea nahiko lukete. Kontuan hartu behar da Elkarteko bazkideen bataz besteko adina 75 urtera iristen dela. Orain arteko bazkideen lana, ondo edo gaizki, jubilatuta guztien ongizatea eta poza bilatzea izan da eta hemendik aurrerako bazkideei ere gauza bera eskaini nahi diete.

Horrenbestez aldizkariko azken lerro hauek aprobetxatu nahi lituzkete herriko jubilatuta gazteak bazkide egitera animatzeko, guztien artean Itsasondoko Bizi Nai Jubilatuta Elkarte bizirik mantentzea posible izan dadin. ■

Irakurzaletasun Kanpainaren Balorazioa

Sarrera

2011ko uztailean, Itsasondoko liburutegiak bultzatuta, “Irakurzaletasun kanpaina” jarri da martxan. Azken aldian, liburutegira jende gutxi agertzen zela eta liburu gutxi erabiltzen zela ikusita, udan, liburutegia kalera ateratzea bururatu zitzaigun. Helburua herritarrei liburuak eskura jartzea zen. Horretarako, herriko guneko estrategikoetan hainbat liburu jarri ziren, herrietarrek har zitzaten.

Helduentzako zein haurrentzako liburu eta aldizkariak jarri ziren udaletxean, tabernan, janari dendan, jubilatuta elkarteetan eta mediku etxean.

Kanpaina horrek hilabete iraun du. Astero-astero, liburutegiko arduradunak liburuak aldatu egiten zituen.

Balorazioak Datuetan

Herritarrek guztira 26 liburu hartu dituzte kalean. Gehienak taberna eta dendatik hartu dituzte, bertan ibiltzen delako jende gehiena. Gaintzekoetan ez da mugimendu handirik ibili.

Hilabeteko datuak ikusten baditugu, ordea, eta kalkuluak eginez, uztailean 52 liburu hartu dira liburutegitik, inoiz baino gehiago. Hemen datu esanguratsuak (herrietarrek apuntatzen duten tauletatik egindako kontaketa):

- Urtarrila: 19 liburu
- Otsaila: 28 liburu
- Martxoa: 27 liburu
- Apirila: 24 liburu
- Maiatza: 30 liburu
- Ekaina: 23 liburu

Uztaila: 52 liburu (Horietatik, 26 kalean hartu dira, irakurzaletasun kanpainan)

Orokorra

Kanpainaren balorazio orokorra oso positiboa da, jendeak liburuak hartzeko aukera izan duelako eta hartu dituelako. Bestalde, liburutegian, aspaldi egon ez den mugimendua nabaritu da eta jendeak liburu ugari eraman du etxera irakurtzeko.


Udalekuetako begiraleekin koordinazioa eman da eta haurrek ere liburu ugari eraman dute etxera irakurtzeko, eta liburutegian, ipuin kontaketa saioak egin dituzte eguraldi txarra izan denean.

Esan daiteke beraz, liburutegia uztailean apur bat piztu egin dela.

Denetarikoa liburuak jarri dira, bai euskaraz bai gazteleeraz. Aldizkariak ez dute hainbesteko arrakastarik izan.

Iraupena hilabetekoa izan da eta hasiera batean kostatu egin bazen ere, denbora aldetik nahikoa dela ondorioztatu da.

Espazio batzuetan eragin handirik izan ez badu ere, beste toki batzuetan liburu asko hartu dira, eta batez ere, liburutegian mugimendua areagotu da. Horregatik egin da balorazioa positiboa.



Amabirjina jaiak

Amabirjina bezperan jubilatuko giro paregabean burutu zen jubilatuko afaria, trikitilariak afal ostean alaituz.

Amabirjina egunean, meza nagusia, bertsolariak, hamaiketako eta toka txapelketa izan ziren, aurtengoan irabazleak...

Arratsaldean, pilotalekura pilota partida ikus-tera hurbildu zineten guztioi barkamena eskatu nahi dizuegu. Udalari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik aurreikusita zegoen pilota partida ezin izan baitzen jokatu.

Jaiei amaiera emateko, sagardo dastaketa izan genuen gaztaz lagunduta, honelakoetan gertatu ohi denez, lagun bezainbat iritzi eta gustu izaten da. Datorren urtera arte.



Ordiziako XXI. elkartearen arteko sukaldari txapelketa

Urtero legez, Ordiziako Euskal jaien barruan, eta azoka bereziaren bezperan, "Larrun-Arri" elkarteak elkartearen arteko sukaldaritzako lehiaketa antolatu zuen. Zazpi elkarte hartu zuten parte, eta horietatik bat gure herriko "Arbel-Aitz" elkarteak. Badira 6 urte lehiaketa horretan parte hartzen duela, eta aurten gainera, txapela herrira ekartzea lortu zuten. Sukaldariak Iker Mendizabal eta Jesus Ortiz izan ziren eta bi plateretan suertatu ziren txapelak, gainera. Beraz, sari nagusia ere beraiena izan zen. Lehenengo platerak "Idiazabal" erara prestatua izan behar zuen, eta bigarren platerak, berriz, Aralarko arkumea beraiak nahi zuten erara. Hona hemen gure herritarrek aurkeztu zituzten bi platerak:

- 1.- Garaiko barazkien milorria (milhojas) Idiazabal erara.
- 2.- Arkume errea "cava" erara eta mahats alez lagundua.

Zorionak eta ea datorren urtean errepikatzen duzun.



San Juan Sua

Urtero moduan, San Juan bezperan sua piztu eta urteko egun luzeenaz aprobetxatzeko parada izan genuen. Aurtengo eguna luzea izateaz gain beroa ere bazela kontuan harturik, ederki sartu ziren dantza egin ondorengoko txorixo, sardina eta batez ere sagardo freskoa.

Sutara bota genituen kezka, sufrimendu eta urteko pasadizo txarrak. Bertan garrek kiskaliko zituztela espero dugu.




Urkiko Jaiak

Agorreko Gurutze Deunaren jaiak ospatu berri ditugu, Urkia auzoan. Eguraldi aldetik paregabea izan dela azpimarratu behar. Jaiak medio, bertan sortu zen giroa ere goraiatu nahi nuke.

Igandean, jende ugari hurbildu zen, eguerdian asko, baina are eta gehiago arratsalde-iluntze partean. Herri kiroletan lehia bizia eta ikusgarria izan genuen. Hainbat proba desberdin egin ondoren, alde batetik aizkolariak eta harri-jasotzaileak bestetik, azken proban txanda librean aritu ziren Arrospide eta Goenatxo II, Ugarteburu eta Goenatxo Illaren aurka. Azkenean, lehenak atera ziren irabazle. Ondoren, erromeri jendetsua izan zen, plaza bete jende aritu baitzen dantzan. Asteazkenean, Gurutze Deunaren egunean, jende asko hurbildu zen, eguerdian, eta giro aparta izan genuen hamaiketako garaian, trikitilari gogotsuen laguntzaz.





UNA DIOSA PARA EL REY
Mari Pau Dominguez

Salamanca, 1543: Carlos V. ren seme Feliperen eta Isabel de Osoro gorteko damaren arteko amodiozko istorio ezinezkoa hartzen du oinarritzat Mari Pau Dominguezen eleberrri honek. Amodiozko istorio tragiko eta samurra dugu hau.



VENENO PARA LA CORONA
Toti Martinez De Lezea Garcia

Totiren liburu ia guztien moduan, historian zehar bidaiatzera gonbidatzen gaitu eleberrri honek. XV. mendeko Nafarroan girotua dago eleberria, Vianako printzearen heriotzak sortzen duen zurrumbilorian barneratzen gaitu, eta emakumeen mendeku gosea eta pozoia erabilera hilgarria izango ditu ardatz eleberrri honek.



CAROLINA SE ENAMORA
Federico Moccia

Carolinak 14 urte ditu, neska alai eta askea dugu, eta institutuan hasteko garaia iritsi zaio. Lagun berriak egingo ditu, baina batez ere bere lehen amodioa ezagutuko du, inoiz ahazten ez den horietakoa, Massimilianok bere bihotza pozez gainezka jarriko du, baina zoritxarrez Massimiliano bera izango da bihotza hautsiko diona ere. Carolinak haurtzaroa pixkanaka utzi eta helduen arazo eta gorabeherei aurre egin beharko die.



EL CUADERNO DE MAYA
Isabel Allende

Maya Vidal naiz, 19 urte ditut eta Californian jaioa naiz. Nire bizitzaren istorioak Txilen du jatorria, nire amona bertan jaio baitzen, eta bertan ezagutu zuen nire aitona ere. Beraiek izan ziren bidaia eta joan etorrien abenturari hasiera eman ziotenak.

LIBURUTEGIKO OHARRA:

Itsasondoko liburutegian zerbitzu berria jarri da. Hain zuzen ere, astearte eta asteazken goizetan arreta zuzena eskainiko da 9:30etatik aurrera. Bertan, arduraduna izango da eta erabiltzaileek txartelak egiteko, zalantzak argitzeko, liburuak topatzeko edota libururua eskatzeko aukera izango du. Interesatzen den libururik ez balego, beste liburutegietatik ekartzeko aukera izango litzateke. Horretarako, astearte edo asteazkenetan, liburutegira gerturatu behar da. Horrez gain, liburutegiko helbidea luzatu nahi da, liburutegira gerturatu ezin duenak bere eskaera egiteko: liburutegi.itsasondo@udal.gipuzkoa.net.

(lorezaintza gomendioak)

Udan loratzen diren erraboilakarak (bulbosak)

Zaintza orokorrak

Garrantzitsuena drainatze ona izatea da. Lur umeletan usteldu egiten dira. Komenigarria da leku eguzkitsuetan aldatzea, nahiz eta leku itzaltsuetan ere ernaltzen diren zenbait barrietate. Aldaketa udaberrian egin behar da.

Sakontasuna

Aldatu beharreko sakontasunak bulboaren beraren altueraren 2 edo 3 aldikoa izan behar du, hau da "patatak" 4 zentimetro baditu, 8 zentrimetotara aldatuko dugu. Garrantzitsua da patata era egokian jartzea: sustraia duen aldea berantz.

Atsedena

Bulboa lorea eman ondoren, atsedenean sartzen da, ureztaketa etengo dugu eta zurtoina eta hostoak usteldu arte itxarongo dugu lurretik atera eta hurrengo sasoi arte gordetzeko.



Amarilis

Globo itxurako bulboa da, oso handia, lurretik at geratzen da patata horren zati handia. Lore handiak, mardulak ematen ditu, 15 zentimetroko luzerakoak eta 2-4 lore zurtoin luze eta zilindriko batean.



Begonia tuberosa

Landare honek 25-40 zentimetroko altuera du, bere patata handia eta zapala du. Loreak kolore eta tonaltate askotakoak izan litezke. Loreek tamaina handiak nahiz txikiak izaten dituzte. Leku eguzkitsua behar dute, nahiz eta izpi zuzenak ez zaizkien gustatzen.



Dalia enana

Landare belarkara da. Sustrai tuberkuluduna du. Tamaina desberdineko landareak dira, zentimetro gutxikoe-tatik metro bateko luzerara arte. Ontzietan aldatzekotan tamaina txikiak aukeratu ditugu. Daliak uda hasieratik udazkenara arte loretan egoten dira. Eguzki asko behar dute, eta leku haizetsuetatik urruntzea komeni da.



Gloxinia

Rizoma tuberoso du eta 25 zentimetroko altuera har dezake. Bere hostoak aterziopelatuak dira eta berde ilunak. Lore handiak eta kanpai itxurakoak ematen ditu, kolore desberdinetakoak (zuriak, gorriak, urdinak, bi koloretakoak...). Leku argitsuan jartzea beharrezkoa da, baina eguzki izpi zuzenetik babestuz.

Maixel Garmendia
Izadia Loradenda. BEASAIN
943 88 14 40



(errezeta)

Jogurt sorbetea abrikotarekin

Osagaiak: 4 pertsonentzako.

- 4 jogurt natural.
- 200 zl esnegain.
- 300 gr azukre.
- Kilo 1/2 abrikot.
- 100 zl ur.

Prestakuntza:

Hasteko, abrikotak zuritu eta hezurra kenduko diegu eta eltze batean jarriko ditugu 200 gr. azukre, urarekin batera sutan jarri, egosi eta purea egin arte. Gero turmixarekin txikitu eta hozten jarri.

Beste alde batetik, esnegaina pixka bat harrotu (ez asko), eta jogurtak eta 100 gr. azukre gehitu ondoren ongi nahastu.

Abrikota ongi hoztu ondoren, kopa baten laurdena beteko dugu, eta gero, jogurtarekin egindako nahastea gainean jarri. Bazkari astun baten ostean hartzeko prest.



Jose Ignacio Duhau
Rubiorena Jatetxea. BEASAIN
943 88 57 60